

Zuzendaritza/Dirección: Roberto Etxebarria Goikoetxea

Ekoizpena/Producción: Jira Musikaz - Roberto Etxebarria Goikoetxea

Koordinazio orokorra/Coordinación general: Idoia Markaida Carrasco

Grabaketak, nahasketak eta masterizazioa/Grabaciones, mezclas y masterización:

Musikaudio estudioa (Aitor Rubio)

Moldaketak/Arreglos: Aitor Rubio, Roberto Etxebarria

Haizezko tresnen moldaketak/Arreglos de los instrumentos de viento: Ivan Allue.

Diseinua/Diseño: Enrique Rey Monzón

Letrak/Letras: Herrikoikiak, Labayru Fundazioa eta Jabier Kalzakorta Elorzaren "Dantza-Koplak"

liburutik hartuak. / Populares, y "Dantza-koplak" publicadas por Fundación Labayru y Jabier Kalzakorta Elorza.

Diskako musikariak/Músicos/as del disco:

Roberto Etxebarria Goikoetxea: Soinu txikia (trikitixa), panderoa eta ahotsak

Miren Etxebarria Erauskin: Panderoa eta ahotsak

Aitor Rubio Miota: Gitarra eta bajua

Rebeca Kerstin Alonso Lacasta: Bibolina

Ivan Allue Hermosilla (Txistuman): Whistle-ak, Uilleann pipe, txistua.

Eskerrak /Agradecimientos:

Labayru Fundazioa, bereziki, Jabier Kalzakorta, Akaitze Kamiruaga: zuen ekarpen eta laguntzagatik/*por vuestra aportación y ayuda*. Nagore de las Cuevas, Arkaitz Pascuas: baldintza bako aholku, kideetasun eta laguntzagatik/*por vuestros consejos, amistad y ayuda incondicional*. Jon Aurre, bi-delagun izateagatik eta laguntzagatik/*por estar al lado a lo largo del trabajo y por tu ayuda*. Etxekoak: zuen pazientzia eta konfiantzagatik/*A los/as de casa; por vuestra paciencia y confianza*.

Eskerrak be 35 urte hauetan, gure doinu eta kantak zabaltzeko aukera emon dauskuzuen daretariko antolatzaileei /*Agradecimiento a organizadores que durante 35 años nos han dado la oportunidad de expandir nuestras melodías y canciones*.

Miren eta Roberto Etxebarria

Harremanetarako/Contacto:

etxebarriaroberto@gmail.com

jiramusikaz@gmail.com

Miren eta Roberto Etxebarria

Hamaikatxu koplak... pandero baten konture!



EUSKARAZKO DANTZA-KOPLÉN XARMA ETA LILURA

Dantza-koplak, Euskal Herriko mendi-auzoetan, batez ere udako jai-giroan, antolatzen ziren erromerietan neska-mutilak dantzatzeko koplak izan ohi ziren. Garai bateko erromerien funtsa, besteak beste, eguneroko lan gogorra ahaztu eta atseden egitea izan ohi zen. Egiatzko euskal giro batean, pandero-jole eta txerrebete-jole baten doinu alegerean, dantza egitea eta elkarren ezagupidea egitea garai bateko gizartean bizi ziren neska-mutilen ametsik desiratuena zen.

Pandero-joleak soinuarekin batera kantatzen zituen koplak hobeto ulertzeko zein ingurugirotan kantatuak diren jakitea beharrezkoa da. Pandero-joleak kantatzen zituen koplak, gehienetan, ziri koplak ziren, koplak ironikoak. Kopla bakoitzak hitz oso gutxitan halako zapora bizi bat du: gatzeta eta biperra berekin ditu. Gatzeta eta biperra zein gatzeta eta berakatzeta. Eman dezagun adibidetxo bat:

**Zapatak urratuta
gorputza nekatu,
zeruko bidea
apur bat luzatu.**

Dantzan dihardutenek dantzatu ahala “zapatak urratu eta gorputza nekatu” egiten dute. Dantzan ari direla ez ote dira zerua ukitzen ari? Elkar ezagutzeko bidea ere ez ote dira apur bat luzatzen ari? Eta zerua gaitzat hartuta eman dezagun beste kopla bat:

**Iragarrita dauko
san Juak Korukok
mutil zarrik ez dala
zeruan sartuko.**

Kopla honetan argi eta garbi esaten da: San Juan Korukok iragarrita du ez dela zeruan mutil zaharrik sartuko. Zeruan sartzeko ezinbestekoa da, beraz, ezkondua izatea. Eta ezkondu aurretik neska-mutilek elkarren ezagupidea egin beharko dute. Ez ote da pandero-jolea modu argiegi batean mutilak zirikatzen ari? Garai batean, erromerian, mutil basakoek, ahuntza larrean ikotika bezala, ipursaltoka jardungo zuten. Saltoetan gora egiten zuten txapelek ez ote zuten eskenatokiari halako itxura harrigarri bat ematen? Hona kopla bat:

**Gaztiak entzun dozue
beste onenbeste,
mutilak zenbat salto
txapelak ainbeste.**

Iruzkindu ditugun hiru dantza-kopla hauek garai bateko erromeriak irudikatzen hiru pintzelkada baino ez dira. Roberto Etxebarriak lan honek tarako aukeratutako kopla bakoitza beste pintzelkada bat da, egiatzko erromerietako argazkia ezezik, garai bateko gizarte eta ahozko euskal dantza-koplen ironiaren erakusgarri ere bai.

Jabier Kalzakorta Elorza

Gazte-gaztetatik izan dodaz soinu txikerra eta dantza-kopla edota kopla bertsotuak nire inguruan. Inondik inora ez zan bapere eskola txarra izan 9-10 adin tarte horretan domekaro izaten nauen "liturgia"; hobeto edo argiago ezin esan, hamaiketako meztatik etxera bueltatu ostean gertatzen zan eta. Ama harrikoa edo bazkaria prestatzen ari zan bitartean soinua jotzen iminten eustan (tekladun soinua, sasoi haretan), eta holantxe eiten nauen saiotxue; kanta bat, eta beste bat, eta beste hori bere politte da eta..... Gero hiru-lau gailera mistelatan busti eta haren ale-grantziegaz "Bizkaiko trikitilariak" "kasete" a ketan hasiko zan, eta amagaz dantzan egin beharra egokitzen jatan (nahiz eta dantzan eitea ez zan bapere neure gustokoa). Holantxe ezagutu nebasan: Izukitzetik Gatikaratutako Tomas, alabea salgai eukon atsoa, Hilario Azkarate, Gallastegi eta beste hainbat pelotari, sator plantako mutilak edota Josepa lehengusíñe.....

Nork esango eustan handik gitxira grabaketa horretako artistakaz soinua jotzen ikasi eta plaza-rik-plaza ibiliko nintzela, eta ganera borobiltzeko etapa hori amaitu eta urte gitxira kopla guzti horren ahots eta panderoa jartzen ebanagaz luzaroan arituko nintzela kalerik-kale, bazterrik-bazter eta erromeriz-erromeri. Ez dot uste be atrebentzi handiegia danik Kepa Arrizabalaga Euskal Herriko koplaririk handienetarikoa dogula esatea. Ezinbestekoa beraz, sukalde horretatik pasau eta euren mailara ailegatzea gatxa bada bere, gitxieneko aitortza eta omenaldia eskeintzea bihotzez gure musikari bidea erakutsi eta bideratu euskuenei.

Lan honetan, betiko trikiti-kopla moldeetatik urten eta danetariko doinu erritmoak lantzen saiatu naz, baina aldi berean betiko trikiti doinuak beste ikuspegi batetik begiratu. Hau da, aspal-ditik neukan idea, guk koplaren partea deitzen diogun eta beti kantatu izan dogun zati horretaz gain, agian beti ezagutu doguzan zati musikalak bere kantatu zitekeezela. Zati musikalen doinuei, apaingarriak eta pasoko nota batzuk kenduta ederto baten txertatzen zirela gure dantza-kopla laburrak. Hortxe beraz Maria Erramonaren atazak eta Fruiz doinuetan kasureko, nire fantasiaren emaitza!

Roberto Etxebarria Goikoetxea

Hor goiko larretan

Doinua: R.Etxebarria

Hor goiko larretan
eperrak dabiz kantetan
gure herriko alkateari
kaka ein dotse fraketan.

Azak eta porruak
zubi ondoko kontuek
hamalau oilo jan dotsezela
Basiliori katuek.

Hor goiko larretan
eperrak dabiz kantetan
gure auzoko gizontxo hori
kaka dariola fraketan.

Zotzak eta paluek
estudiantien kontuek
estudiantiek sasirik sasi
asko jan da gitxi ikasi.

Mutil txaleko gorri

Doinua: Herrikoia / R.Etxebarria

La-la-la...

**Ai mutil txaleko gorri
zegan dok pandero hori
hamar ogerleko t'erdia
karu dok pandero hori.**

Zeuk esan omen dozu
ez dala badala
kondearen alaba
monja sartu dala.

Kondearen alaba
pipita kolore
ez omen du balio
kuarta bat labore.

**Ai mutil txaleko gorri
zegan dok pandero hori
hamar ogerleko t'erdia
karu dok pandero hori.**

Joan nintzen Madrilera
bai etorri bere
hango neskatotxuak
ez nabe ni maite.

Hango neskatotxuak
maite nabenean
fraile sartuko naz ni
komentu batean.

**Ai mutil txaleko gorri zegan
dok pandero hori hamar
ogerleko t'erdia karu dok
pandero hori.**
La-la-la...

Ogoetak

Doinua: R.Etxebarria

Atzo Bilbon nengoan/ta gaur Mañarian
ura sarri falta da/gure iturrian.

Sagastiko iturrian/ur goxoa dator
egarria ase ta/atsegiñez nator.

Jaio nintzenez gero/gura neuke bizi
ikusi ez nahi nauenak/begi biak itxi .

Ura falta dan arren/ardaua ugari
komei ez dan gauzarik/ez esan iñori.

Aratosteak joan da/garizuma etorri
garizuma igarota/berriz pekatari.

Aputz eta Polaño/ibili ziren yantzan
garizume santuan/igertuko landan.

Sagar garratzak eta/okaran berdeak
hemen pasaten dira/kontu zebreak.

Harako aintzineko/bioren kontuek
ixilik egon arren/ez dodaz ahaztuek.

Hementxe naukazue/kantetan penetan
eskerrik asko bere/ez daust iñok esan.

Gazte zaran artean/jolasari oratu
behin gozatutakoa/iñok ezin kendu.

Jentea hemen dabil/firri eta farra
biba mokordue ta/biba kakazarra .

Agur agur Maritxu/Maria zelemín
bakotxak beranagaz/nahikoa zeregin.

Donostiako

Doinua: Herrikoia / R.Etxebarria

Donostiako herritxu batek/hegalak dituz zabalak
hantxe eukezan alargun batek/hiru alaba galantak.

Eskatu neutsan emon deiztela/hiruretatik zaharrena
errespuestia emon eustala/mutil pobrea nintzala.

Mutil pobrea banaz ni bere/ez haren alaban gura
ardau zuritxen edango leukie/Naparroako kanala.

Ogi zuritxen jango leukiela/euren ta neure jornala
ta Ebroke urak ez lei garbitu/haren atorran magala.

Hiru damatxo Donostiako/Errenterian dendari
josten da plantxan dakie baina/edaten bere poliki.

Egian kolorian

Doinua: R.Etxebarria

Maitea, maite zaitut
zeuk halan banozu
biok biziko gara
zeuk gure badozu.

Txoritxu bet on da hemen
lehen hemen ez zana
uden berotuko da
neguen ez dana.

Indiak irebazten
errezak ez dire
zure begi ederrak
gatxagoak dire.

Tiriki tauki-tauki
zeu nire lastana
katiatu ninduzun
librea nintzana.

Soloan nagoenean
eguzki berotan
neure pentsamentua
lekurik askotan.

Lastana Madrilera
zeu zoazanean
eroan beharko nauzu
neu bere aldean.

Amore bat eukita
denpora luzean
beste bat agertu da
bien bitartean

Engañatu ninduzun
berba labanakaz
egian kolorian
guzur galantakaz.

Maria Erramonaren atazak

Doinua: Herrikoia / R.Etxebarria

Hitzak: Herrikoiak / Aipamen berezia: Juliana eta Eulalia Madariaga

Maria Erramona, Maria Erramona
gortako astotxoari jaten emoiona.

Neure nobiaren ama
asto baten jaube dana
astoak ekarrikotso
etxean behar dauana.

Erreka bazterreko
lirio lorea
enaz ederra baina
bai eder zalea.

Ama neureak baleki
ze alabea naukan ni
egunez negar da negar
gaubean bere lo gutxi.

Ederra zareala
pentsetan badozu
ispillu faltsu horrek
engainetan zaittu.

Larrosa maiatzekoa
imitten zaitut kontuen
batek ezetz esan arren
beste asko da munduen.

Eder ederra baino
hoba da komune
ederrak kendu leike
buruko zentzune

Hauxe da despedidea
despedide honen tristea
ein badot berbarik txarto
parkaeske nago jendea.

Fruiz

Doinua: Herrikoia - Javier Lakuntzak Fruizen transkribatua, Bixenti errementarie soinulariari jasoa.

Hitzeekin moldatua: R.Etxebarria

Labayruk batu eta argitaraturiko kopla hauetan, garai bateko moral atzerakoiaren begiradapean, generoarekiko ikuspuntu baztertzalea agerian lotzen da; zorionez aldatzen doan esparrua, baina zalantza barik lantzen jarraitu behar doguna.

Aittek errue dauko
amak handiago
han dauzen mutilekin
itxi dotselako.

Ama gure badozu
zeruen sillie
emon alabieri
gaztetan lotsie.

Hasi Fruizen eta
Artebakarreraino
ez dala politxaurik
Siriakatzu baino.

Amak esaten dotso
Siriakatzuri
ez edateko urik
koputxu bat barik.

Begiek baltzak baltzak
azala zurie
munduen askok dauko
zure enbidie.

Gaztetan lotsie
ta zahar einde plazie
belu datorrenien
kastigu handie.

Amental zuritxue
garrien politxe
zulango damatxurik
ez dago herrien.

Adios esan arren
lagunen aurrean
ez zaitut despeditzen
neure bihotzean.

Luzea bazan bere

Doinua: Herrikoia / Moldaketa: R.Etxebarria

Luzea bazan bere/Santiago eguna
laster etorri jakun/gauaren iluna
bai neure laguna/bai neure laguna.

Errekarik gorako/aldatzen gogorra
sarri behar izan dona/han gora laguna
bai neure laguna/ bai neure laguna.

Aldatza igarota/zelaiaren erdian
aurrera joateko/negarra begian
negarra begian/negarra begian.

Etxe zahartxu bat dago/hatxaren erdian
ez da haizerik sartzen/kalma dauanian
ezta euririk bere/ateri danian.

Juateko haraxe/badaukat dotea
astotxu zahar zahartxu bat/imintxaz betea.
imintxaz betea/imintxaz betea.

Arrigoan ganean/ez dago zer esan
zazpi zortzi gitxiago/ditut kamixetan
ditut kamixetan/ditut kamixetan.

Ezkontza barrirako/badaukat trajia
orain berrogei urte/aitari lajia
aitari lajia/aitari lajia.

Zapatak ere berriz/aukeran pareta
lau urtean lustrerik/ikutu bageak
ikutu bageak/ikutu bageak.

Holan bazan...

*Doinua: R.Etxebarria
Hitzak: Herrikoia / R.Etxebarria*

**Eta holan bazan edo ez bazan
sar gaizuez bai kalabazan!
Kopla txit harrigarriak
kantatu geuntsuezan plazan.**

Gorozikeko etxe baten
zazpi koltxa oge baten
mutil batek ipiñi dauz
deskantzaten apur baten.

Santutxuko erroserie
viva la virgen Marie
erroskakin einde deukoz
pratikerie eta jakie.

Hara hor goian atso bi
batak bestea dirudi
batak dekoz ehun urte eta
besteak ehun da hamabi.

Batak gura dau ezkondu
bestiak josten ikesi
soineko horren goait dagonak
milla ta bostehun ipingi.

Tristerik nago tristerik
ez dekot alegantzirik
bostehun urteko agure bat
ohian dekot neuk geixorik.

Olo bat il dotset baña
ez deko mejoriarik
beste bat ilgo neuskijo
sekula jagiko ez balitz.

Ama ezkondu

Doinua: Azkuek batua / R.Etxebarria

Ama ezkondu, ezkondu
denporea dan artean.

- Ene alaba zer dirauztazu?
ogirikan ez etxean.

- Galburutxo bat topatu neban
bidean ostikopean,
zortzi anega atara neutsazan
aurreko lakaina batean.

**Ukulun dringin maspelen dringin
sankulun de blanko txuntxulun berde
txintxibiribiri rrak eta plau
ardauak honela ipinten nau**

Ama ezkondu, ezkondu
denporea dan artean.

- Ene alaba zer dirauztazu?
ardorikan ez etxean.

- Mahats mordotxo bat topatu neban
bidean ostikopean,
zortzi kantara atara neutsazan
istutu aldi batean.

**Ukulun dringin maspelen dringin
sankulun de blanko txuntxulun berde
txintxibiribiri rrak eta plau
ardauak honela ipinten nau**

Orratzaren punteak

Doinua: R.Etxebarria

Etxean euki arren/sarri morokila
harexek emoten dost/estomagu hila.

Tabernariari dautsat/entzune patrona
afari txar bi baino/hoba da bat ona.

Goazen trabenara/hobearen bila
atsoa umeakaz/afora dedila.

Ortuen perejila/ saleroan gatza
atara mari pepa/jan daigun lebatza.

Lebatz tajadiakin/lukainka musturra
trabenan egoten naz/horrekin gustura.

Orratzaren punteak/irabazi gitxi
endemas trabenara/bidea badaki.

Pipea mosuen da/basue eskuen
etxerako akordurik/etzeuek orduen.

Agur tabernerea/hurrengo artean
argia egidazu/kanpora artean.

Datapean

Doinua: R.Etxebarria

Txirikan

Doinua: R.Etxebarria